

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko uztailearen 4a

*



Txupinazoarekin batera jaiegunak hasiko dira batzuentzat, eta lanegunak beste askorentzat.

JOXE LACALLE

Sanferminak...

■ Bi egun, 48 ordu baino ez dira falta Iruñeko alkate Javier Chourrautek txupinazoa botatzeko. Sanferminak, azkenik, hemen dira berriro. Karrikak apaindu eta txukundu dituzte, hiriko erakusleho guztiak zuri-gorri jantzi dira, iruindarrak bestarako prest dira, tabernak garagardoz beteta, eta karrikak atzerritarrez gai-

nezka. Dena prest, beraz, sanferminei hasiera emateko. Igandeko txupinazoarekin batera, askorentzat munduko bestarik onenak diren horiek hasiko dira, parranda eta algara egunak iruindarrak guztientzat. Guztientzat? Ez horixe, sanferminetan lan egiten duten iruindarrak ere, sorginak bezala, egon badaude. ■

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Aurtengo otsaileko hirugarren astea zen, asteartea; ondorioz, bi egun besterik ez nituen artikulua idatzi, neu erre-dakzio egoitzara joan eta gehigarri honen arduradunari emateko.

Nire aurrean ikusten nituen bi hormak zuri zeuden, mahai gaineko papera bezala. Partidua hastear zegoen eta ni kantxara atera ezinik nenbilen, arras geldirik, zartadura mentalak joa. Izan ere, idazten hasi aurretik antzeko desgogoa sentitu ohi dut aldiro, txoko honetan agertzeko parada eman zidatenetik: hasiera batean ondoeza —baina, zertaz aritu?—, eta behin zertaz hori erabaki ondoren —nolatan adierazi orain?—, eta berriro ere ondoeza. Zer eta Nola, hor da gakoa.

Bi kezka horiek ezezik, banuen beste oztopo bat bi hormetara bota beharrak eragindakoa: pilota txapapera bidaltzeko edo zabaleko marraz kanpoko zura ukitzeko arriskua, alegia. Behialako Pierola almandoztarrak eta egungo Titin errioxarrak ongisko dakite zeinen eder eta zeinen galbidegarria gerta

dakiokeen jokalaria, pilota hola jotzekotan.

Egun hartako nire egoera halatsukoa zen, hortaz: anitz ziren aireartzeko gaiak, errealtatearen aldeak bezainbeste bestalde; burura nahaspilatutik zetozen baina.

Bazen egun horietan, hala ere, kontu zahar bat hedabideetatik berriro kontagai zebilena: orain dela hogeitau urte Argentinan izandako kolpe militarrek ekarritako ondorio lazgarrietako bat: Maiatz Plazako Amak. Karpetara jo nuen segituan, eta hantxe zegoen, zirraborroz eta amaitu gabea, *hurrupatuen* tragedia gorriaz idatzitako poema luze bat. Birritan pentsatu gabe, idazkia hartu eta ostiraleko zitarako moldatzeari ekin nion gogoz.

Bi elementu zeuden jokoan. Batetik, disidentzia edo beste zernahi zioengatik desagertarazi egin dituzten pertsonen arazoa, Argentinan bereziki kokaturik baina edozein tokitara zabal litekeena, eta, bestetik, gertaera horrekin zerikusia ez duen kultur ondare bat, gu-

re kasuan Argentinako biztanleengan zeharo sustraitzen den esne gozokia, hain zuzen.

Beraz, banuen pilota ideiaz eta hitzez ontsa kargatuta, Nafarkariaren hormak begibistan; zartakoa ematea falta zitzaidan bakarrik. Orduantxe agertu zen Marta.

Marta istorio honen funtsa da, protagonista, Historiaren atal gordin bateko lekuko fabulatua. Bere etxeko sukaldean ari da lapikoari eragiten, eta, esnearen borberrari so eta adi dagoen bitartean, gauzak irudikatzen ditu, bere gogora bilduta. Seme galduaren oroipena ezin du burutik kendu.

Marta ez da benetan existitzen, nik asmatua delako, ez ordea testuinguru historikoa. Pilota, haren bidez bota nuen indarrez airera, ezker-eskuin, otsaileko ostiral hartan; kaskatik pasatu ere egin, gabe zenbait hilabete igaro ondoren, horren ederki bueltatuko zidatela, sari dotore bihurtuta, Andoaingo Udaletxeko frontoitik. Haratx!, nire poza eta esker ona. X

Martaz

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Tutera: Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du bihar, Castel Ruiz Kultur Zentroan.

Iruñea: Peñen Batzordeak antolatuta, Gozategik San Frantzisko plazan eta Ska-P taldeek Antoniutti parkean joko dute bihar, gauerditik aurrera.

Arguedas: De Dos en Blues Band taldeak kontzertua eskainiko du bihar, Foruen plazan, gauerditik aurrera.

Burlata: Los Bio-Lentos taldeak kontzertua eskainiko du, gaur gaueko 9:30etan, Replicante tabernan.

Iruñea: Sanferminetako Barraka Politikoen antolatutako egitarauaren barruan, Tapia eta Leturia Band, 2 Kate eta Flutter taldeek kontzertua eskainiko dute astelehenean, gauerditik aurrera.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Natxo Zenborainen karikatura fotografikoak ikusgai dira uztailearen 15era bitartean, Primi aretoan.

Erriberri: Maite Berruezok egindako margoak ikusgai dira gaurtik hileren 27ra bitartean, gazteluko aretoan.

Iruñea: Dan galerian Sanferminei buruzko erakusketa kolektiboa dago ikusgai, uztailearen 17ra bitartean. Asteleheneetik larunbatera bitartean, arratsaldeko 7:00etatik gaueko 9:00ak arte, eta igandeetan, eguerditik arratsaldeko 2:00ak arte.

LEHIAKETAK

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak Umeentzako Antzerki Testuen VI. Lehiaketa antolatu du. Hemezortzi urtetik gorakoek parte har dezakete. Egile bakoitzak argitaratu gabeko hiru testu aurkeztu ahal izanen ditu gehenez, gaztelaniaz edo euskaraz. Parte hartu nahi duenak Nafarroako Antzerki Eskolara (Iruñeko San Agustin, 5) bidali behar ditu lanak, abuztuaren lehen baino lehen.

Agoitz: Bilaketa taldeak Agoitzko Hiria Poesia Lehiaketa antolatu du. Lanak hileren 20a baino lehen aurkeztu behar dira Bilaketa taldearen egoitzan, Francisco Indurain kaleko hamabigarren zenbakian.

Atarrabia: Jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak. Lanak, abuztuaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira herriko Kultur Etxean, kale nagusiko 67. zenbakian, alegia.

BESTELAKOAK

Iruñea: Nafarroako Antzerki Eskolak haurrentzako tailer bat antolatu du, joko dramatikoak ikasteko. Lau eta hamabi urte bitarteko haurrei dago zuzenduta tallerra, eta euskaraz eta erdaraz izanen da, abuztuaren 5etik irailaren 5era bitartean. Parte hartu nahi duenak eskolan bertan eman behar du izena.

nafar kronika

Fermin Erbiti

Sanferminetarako sujerentziak

Etengabeko euriak uztailearen hasierako egunak ohi baino goibelago bihurtu baditu ere, argi dago horrek ez duela egutegian aldaketarik ekartzen eta, beraz, bi egun bertzerik ez dira falta Sanferminetarako.

Sanferminei buruzko azterketan tematuta dauden filosofo, soziologo, sikologo eta gainerako ustezko adituek erraten dute gurea iraultza bat dela, urtean behin hiri serio honek goitik behera aldatu behar duela eta hori neurri batean hala da, baina nik ez dut uste aldaketa hain sakona denik. Izan ere, hemen 204 orduz dena aldatu bai, baina dena berdina izan dadin.

Sanferminek ohikoa bazter batean utzi eta bertze bizimodu askoz erakargarriagoak gozatzeko aukera ematen digutela begien bistan dago. Aldaketak, ordea, sakonagoa beharko lukeela uste dut eta horretan hasteko politikoei ere zerbait egin lezakete. Hona hemen sujerentzia batzuk.

Gauza jakina da agintariena lan gogorra dela, ardura eta erantzunkizun handia dutelako. Harrigarria badirudi ere, pilota partidu batek, ikurriña batek edo hamar urteko neska-mutikoen liburuxkak burukomina sor dezakete geure ordezkari argiengan. Azken asteotako tentsio ikaragarrien ondoren, lasai daitezela, festaz gozatzu, festan murgilduz, bakoitzak ahal duen neurrian, urteko martxa nekosoan alde batera utzita.

Bada, esate baterako, konpartsan lan ederra egin lezakeena, erraldoi, kiliki edo buruhandi bat eramanez. Erraldoi eta kilikiekin jende anitz dagoela kontuan hartuz, buruhandia litzateke egokiena politikoren batendako. Batzuk konpartsan eta bertze batzuk bertso-larien jaialdia. Han, esate baterako, Alzpun ikustea gustatuko litzaidake Elizondoko karraketan entzundako nafar euskara erabiliz. Eta, arratsalde, zezenplazako barrera batean, puroa eta guzti, Floren Aoi, hizketan Lola Egurenekin. Zezenketa bukatuta, biak, lepotik helduta, saltoka *a la una, a las dos, y a las tres... el Bullicio Pamplones* oihukatuz. Uztailearen zazpiko prozesioan Martin Landa, Kontseilu plaza-

txoan San Fermi jota kantatuz ikustea ere ez litzateke ikuskizun txarra eta Ciurriz parlamentari abertzalea (EGUNKARIA eskutan) entziera korritzen ere ikusi nahi nuke eta, orduan bai, orduan onartuko nuke herri honetan astebetetz den-dena aldatu egiten dela, festak karririk eta herritar xumeak ezezik, politikoei ere zortzi egunez aldatzeko balio duela.

Tamalez neurri horretako aldaketa ez dugu ikusiko. Politiko batzuk zezenak *El Gas*-era etorri direla entzun eta berehala alde egin dute hauek Sevillako apirileko feriaren giroa maiteago dutelako hemengoa baino. Gelditzen direnen artean, gehienak zezen plazan izanen dute festa toki bakarra, baina ez eguzki eta ez itzal, haiek denak elkarrekin palkoan. Palkora joateko ohi-turari ez dutenek ere ez pentsa ohiko martxa uztea lortuko dutenik.

Dena den, nahitaez, datozen egunetan ezin izanen dute prentsaurrekorik egin eta, beraz, guk, denok, ongi merezitako atsedena hartuko dugu. On egin.



Soilik bi egun falta dira sanferminak hasteko.

JAGOBA MANTEROLA

asteko pertsonaiak



Ruben Beloki
Pilotaria

■ Ruben Belokik jokatu egiten du Sanferminetan Iruñean izanen diren jaialdietan. Ekainaren hasieran ebakuntza egin zioten, eta orduan adierazi zuen Sanferminetarako jokatzeko moduan egon nahi zuela, baina osaketa behartu gabe. Asteartean proba bat egin eta, azkenean, baiezkoa eman zuen. Ruben Belokik uztailearen 11n jokatu du Goñi II. arekin batera Unanue eta Galarza III.aren aurka, gaueko 10:30etatik aurrera. Sanferminetako pilota jaialdia bihar hasiko da. Arratsaldeko 5:00etan Retegi II.a eta Lasa III.a, Titin III.a eta Armendarizaren aurka ariko dira. Ohizko binakako torneoak ezezik, lau terdi barruko torneo bat ere antolatu dute aurten.



Arthur Miller
Idazlea

Arthur Miller idazlea Iruñean izango da etzitik aurrera, Inge Morath emaztearekin batera, aurtengo sanferminak ospatzeko asmoarekin. Inge Morathek sanferminetan ateratako argazkiekin osatutako erakusketa aurkeztu zuten atzo bertan Iruñeko Udaletxeak Zapateria kalean daukan aretoan, *Inge Morath, San Fermín 54 argazki* izenburupean. Austriarrak festetan egindako lanak biltzen ditu muestrak. Zapateria kaleko aretoan ezezik, *San Fermín años 50* lelopean argitaratutako liburuan ere ikusgai dira Magnum agentziako kidearen argazki horiek. Morath 1954ean izan zen Iruñeko sanferminetan eta liluratuta geratu zen. Festetan izandako inpresioa jaso zuen orain erakusten dituen argazkietan.

ahaztu gabe!



Iazko Peñen Eguneko irudi bat.

PEÑEN EGUNA

Iruñea: Ohiturak agintzen duen legez, Iruñeko Peñen Eguna ospatuko dute bihar iruindarrek. Eguna behar den bezala ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte. Aurreko urteetan bezala erraldoi eta buruhandien konpartsen kontzentrazioa egingen ez badute ere, goizean izanen da, bai, zer ikusi eta zer egin. Takonera parkean, adibidez, kirola izanen da protagonista. Hainbat erakustaldi izanen dira: eskalada, delta hegala, bi motorreko hegazkinak... Gaztelu plazan, halaber, artisau azoka jarriko dute, eta karraketan barrena erraldoi, buruhandi eta zantantzarrak ibiliko dira txokoak alaitzen. Arratsaldean, Miserikordia etxean jaialdia egingen dute. Hiriko beste hainbat txokotan ere izanen da ekitaldirik. Burgoen plazan, adibidez, herri kirolak izanen dira, eta San Frantzisko plazan dantza erakustaldia.

Peñen Batzordeak eta Nafarroako Mineralogia Elkarteak antolatuta, halaber, Bildumazaletasunaren Lehenengo Feria zabaldu zuten asteazkenean. Asteburu osoan izanen da zabalik, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 1:30ak arte, eta arratsaldeko 4:30etatik 8:30ak arte.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuek elkarriketak.

Iratí Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Leitza

Joseba Urkiola: «Ongi kantatu nuen Miarritzen, eta hurrengorako ere sailkatzen saiatuko naiz»

Leitzarrak Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketa irabazi zuen bakarka igandean

Joan den igandean Miarritzen egin zen Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketan bakarkako irabazlea izan zen Joseba Urkiola leitzaarra. Pozik eta kantuan jarraitzeko prest da gaztetxoa. Datorren ikasturtearekin batera kantuan hasiko da berriro, eta bi urtean behin egiten den txapelketa horretan txapela berriz lortzea gustatuko litzaioke.

Irene Arrizurieta / Iruñea

JOSEBA URKIOLA leitzaarra zortzi urterekin hasi zen kantatzen eta Nafarroako Haur Kantari Txapelketan taldeka parte hartzen. Hala ere, ez zuten zorterik izan aurkeztu ziren aldietan, eta bakarka hastea erabaki zuen Juan Bautista Irazola herriko apaizak hala gomendatuta. Irazolaren gomendioei jarraituz, hamar urteko gaztetxoa bakarka aurkeztu zen aurtengo ekitaldira. Bakarrak ateratzea mesederako izan du. Haurren mailan Nafarroako Haur Kantari Txapelketa irabazi eta gero, Euskal Herriko-ra aurkeztu eta han ere garaipena lortu baitu.

Urkiolak joan den igandean Miarritzeko Gare du Midi aretoan egindako Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketako finala irabazi zuen bakarka haurren mailan. Leitzarrak Jean Barbier abeslariaren *Amatxo* kantarekin lortu zuen txapela. Haren atzetik sailkatu zen Nadine Elgoyhen zuberotarra *Sor lekhua* abestiarrekin. Epaimahaiak Urkiolaren



Joseba Urkiolak txapela, kopa eta diploma eramane zituen irabazteagatik.

BOB EDME

ahots ona eta kantatzeko trebezia azpimarratu zituen. Miarritzen entzundakoaren arabera, euskal kantua sasoi onean dagoela esan daiteke.

«Oso pozik atera nintzen» • Hasieran izan zituen nerbioak ken-

duta ongi aritu zela uste du Urkiolak: «Ongi egin nuen lana eta kantatzen gustura eta nahiko lasai aritu nintzen. Bukatzerakoan oso pozik atera nintzen». Behin iritsi finalera eta irabazi egin du. Lehiaketetan eskarmentu handirik ez duen arren,

lortutako txapelaren animoan hurrengoan ere parte hartzeko asmoa badu: «Beste maila batean bada ere, heldu den txapelketan ere berriz aurkeztuko naiz. Datorren urtean 11 urte izanen ditut, eta gaztetxoen mailan ariko naiz».

Familian kantuzalerik ez duen arren, afizioa txikitatik datorriko Josebari. Telebista edo kalean norbait abesten entzuten bazuen, berak ere haren harira jarraitu egiten zuela dio. Kantatzen jarraitzeko asmoa du, baina luzerako duen erabakitzeko gazteegia omen da. «Oraindik gazteegia naiz aurrerantzean kantatzen segituko dudan erabakitzeko. Gustatzen zait baina ez dakit zer egiten dudan handitzen naizenean», dio.

Joseba Urkiola: «Oraindik gazteegia naiz aurrerantzean kantatzen segituko dudan erabakitzeko. Gustatzen zait, baina ez dakit zer egiten dudan handitzen naizenean»

Orain oporrak ditu, eta jostaztean besterik ez du pentsatzen. Ikasturtearekin batera martxoan egiten den Nafarroako Haur Kantari Txapelketan pentsatzen hasiko da. Hala ere, entseguak beranduago, otsailean hasiko ditu Juan Bautista Irazoki apaizarekin.

Dena den, agur esan baino lehen txapela eta garaipena lortu zuen *Amatxo* kanta amari eskaintzen diola gogoratu du, beti lagundu eta horretan jarraitzen duen amari, alegia. X

Sakana

'Udan, euskaraz blai' kanpaina abian jarri dute igerilekuetan

■ **Sakanako Euskara Mankomunitateak antolatatu du**

Erredakzioa / Iruñea

SAKANAKO MANKOMUNITATEAK eta inguruko udalek igerilekuetan euskara erabiltzeko kanpaina jarri dute abian laugarren aldiz, *Udan, euskaraz blai* leloarekin. Aurreko hiru urteetan martxan jarritako ekimenari jarraipena eman nahi izan diote antolatzaileek. Horretarako, igerilekuetan euskara erabiltzeko neurri zehatzak hartu eta udarako hainbat ekitaldi antolatatu dituzte.

Berriki egindako inkestak azaltzen duenez, Sakanako biztanleen erdiak euskaldunak di-

ra, eta hori kontuan hartuz, hizkuntz normalizazioari beste bultzada bat eman nahi izan diote Mankomunitateko eta udaletako arduradunek. Horretarako, besteak beste, igerilekuak erabiltzeko arauak, megafoniaz igorritako mezuak eta beste euskaraz eta erdaraz egiteko erabakia hartu dute, beti ere euskarari lehentasuna emanez. Igeriketa ikastaroak antolatatu dituzte, halaber. Etxarri, Lakuntza eta Arbizun euskaraz izanen dira, eta Altsasu, Irurtzun, Arakil-Uharte, Olazti eta Ziordian, berriz, euskaraz eta erdaraz. X

Iruñea

IPESek umeentzat euskara tailerrak antolatu ditu

■ **Abuztuaren 4an hasi eta 30ean bukatuko dira**

Erredakzioa / Iruñea

URTERO bezala, lau eta hamar urte bitarteko haurrentzako euskara tailerrak antolatu ditu aurtien ere IPESek —Gizarte Ikasketetarako Talde Eragileak—, Iruñeko Udaleko Kultur Sailaren laguntzaz. Abuztuaren 4an hasi eta 30ean amaituko dira.

Astelehenetik ostiralera egiten dituzte San Frantzisko eskoletan, goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:30ak arte, eta bi hamabostalditan. Hamabostaldi bakarrerako edo hilaite osorako eman daiteke izena.

Eta izena emateko, IPES elkarteko egoitzara jo behar dute interesa dutenek, San Miguel kaleko 8.era, alegia, edo 22 59 91 telefonora deitu. Matrikulatzeko epea zabalik dago jada.

Tailerren bidez euskara komunikazio tresna bat dela erakutsi nahi diete antolatzaileek neska-mutilei, hizkuntza horrek duen aberastasunaz ohar daitezten, eta, bide batez, euskara maila hobetu eta euskal kultura ikasgelatik kanpo atera dezaten. Partaldean giza garaipena bultzatu nahi dute, halaber. X

Bera

Erranera zaharren bilduma lehiaketa antolatu dute

■ **Hilaren 31n amaituko da lanak liburutegian edo 'Ttipi-ttapa' aldizkarian aurkezteko epea**

Erredakzioa / Iruñea

BERAKO Euskara Batzordeak herriko erranera zaharren bilduma lehiaketa antolatu du, Berako Udalaren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz. Herrian erabili izan diren eta erabiltzen diren euskal erranera zaharrak biltzea du helburu lehiaketak. Beran sortu edo herrian bizi diren hamasei urtetik goitikoek parte hartu ahal izanen dute lehiaketan, banaka edo taldeka, gainera.

Bildumak laukoizturik aurkeztu beharko dira, Din A-4 neurriko orrietan, orrialde bakar batean, makinaz idatzita eta lerro artean bitarte utzita. Bildumak, halaber, kartazal handi baten barrinean sartu beharko dira, kanpoko aldean ezizen bat agertuz. Barrenean, berriz, beste kartazal batean egilearen edo taldekideen datu pertsonalak agertuko dira (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta nortasun agiriaren fotokopia).

Bildumak aurkezteko epeari dagokionez, hil honen 31n amaituko da. Berako liburutegira edo *Ttipi-ttapa* aldizkarira igorri beharko dira. Liburutegia Kultur Etxean dago, Eztegarra pasealekuan, eta *Ttipi-ttapa* aldizkaria, berriz, Herriko Etxeko plazako lehenengo zenbakian. 31.780 da Berako posta kodea.

Erranera zaharren bildumek informazio edo datu hauek jaso beharko dituzte: erranera zahar bakoitzak izan ditzakeen aldaerak, erranerek adierazi nahi dutena eta adibideak, eta azkenik, jatorria, hau da, egileak norengandik jaso dituen.

Epaimahaiak kideek irailaren 26an emanen dute eza-gutzera irabazlearen izena. Epaimahaiak 100.000 pezetako (4.000 libera) sari bakarra banatuko du. X

SANFERMINETAN EGUN ETA GAU GUZIZ MARTXA KATATXUN BAZKARI-AFARIAK 3AZ GEROZTIK ZABALIK

Indatxikia 16 - Iruñea

San Fermin jaiak
Iruñean lanean

... lanean!

◆ Iñigo Ulazia ◆ Ardozaina

«Ardozainok ez dugu
batere ligatzen»

Bai, iruindar asko eta askorentzat sanferminak beste eta algara egunak badira ere, beste asko eta askorentzat, lan egunak dira. Lan egun gogor eta neketsuak, gainera. Eta askotan, iruindar horien lanari esker egin dezaket beste guztiek besta. Juan Carlos Zapatero gazteak, adibidez, Iruñeko zezenplaza garbitzen du entzierroaren eta zezenketaren ondoren egunero, biharamunean txukun-txukun aurki dezaten iruindarrek. FOCSAko langile Victoriano Bergarak, berriz, hiriko karririk garbitzen ditu, jende gehiena jaiak gozatzan ari den bitartean. Iñigo Ulaziak ere gertutik ikusten ditu gauero lagunak parrandan, Iruña tabernan lanean ari denean. Iñigok ez bezala, goizez egiten du lan Raul Agirrek. Gurutze Gorriko boluntarioa da eta entzierroko ibilbidea markatzen duten hesien atzean ematen ditu sanferminetako goizak.

◆ Raul Agirre ◆ Gurutze Gorriko boluntarioa

«Ez dezatela inor harrapatu!»

RAUL AGIRRE 23 urteko gazte iruindarra da. Hamasei urte zituen geroztik da Gurutze Gorriko boluntarioa. Sanferminetan goizero parte hartzen du entzierroan, baina ez zezenen aurrean, hesiaren bestaldean baizik. Gurutze Gorriko beste 130 bat boluntarioekin batera. Aurten goizean zortzigarren Sanferminak izanen ditu Agirrek eginkizun horretan. Lan gogorra da baina, aitortu digunez, ez luke aldatuko. Raul Agirrerentzat Sanfermin jaiak entzierroko hesietan ematea oihituta bilakatu da jada.

Sanferminetan goizeko 6:00etan hasten da lan eguna Yanguas eta Miranda kalean Gurutze Gorriko duen egoitzan. «Ordu horretan guztiak biltzen gara, bakoitzari entzierroko ibilbidean dagokion lekua banatzen. Lanerako behar ditugun tresnak hartu eta hesietara abiatzen gara», adierazi digu.

Entzierroko lanean zazpi urteko esperientzia du jada Raul Agirrek, baina esan digunez ez da sekula oihituko: «Beti esaten diot

bukatzen dugu beti», esaten du. Sanferminetan parranda egi- teko aukera gutxi izatea ere gogorra da Iñigorentzat, eta lanaren truke irabaziko duen dirua du kontsolamendu bakarra. Izan ere, unibertsitatean ikasten hasiko denerako gordetzen ari da Ulazia irabazten duen diruaren zati bat, «amari eskatu behar ez izateko». Artearen Historia ikasi nahi du Iruñeko gazteak. Gasteizen, Zaragozan edo Salamancan.

Ardozain lanean eman dituen urteotan, Sanferminak tabernetako jabeentzat negozio biribil- biribila direla konturatu da Iñigo Ulazia: «Pentsa, 400 pezeta kalmotxo baten truke». Horrez gain, mota askotako jendea eta egoerak ezagutzeko eta bizitzeko aukera izan du: «Sanferminetan oso ohikoa da ardozainoi zerbitzatzeko eskatzea. Esaten diezu hori zerbitzarian lana dela, baina batzuk haserretu eta tira-birak sortzen dira, batez ere kanpotarrek. Ez dute ulertzen hainek parrandan ibili ahal izateko ari garelako gu lanean».

Perfonaia bitxiel dagokienez, behin, sudurretik eltze bat sartzen zuten gizon bat aurkitu zuten tabernan Ulaziak. Komunean lotan asko eta asko gelditzen dira, esan digunez. Aurten zer-nolako



Goiko argazkian, Iñigo Ulazia ardozaina; haren uestez, ardozain lana oso gogorra da, batez ere asteburuetan, lan erlrimo bizia eskatzen baitu. Behean, berriz, Raul Agirre Gurutze Gorriko boluntarioa; entzierroa hasteko beti nerbioak jota ibili ohi da.

LUIS AZANZA

jendea ezagutu eta zer motatako egoerak bizi behar izanen dituen pentsatzen, irriz hasten da jada iruindar gaztea: «Sanfermin guztiak dira ezberdinak».

Bada, ordea, Sanferminetan aldatzen ez den gauza bat, Iñigok dioenez: «Tabernetan zerbitzariak asko ligatzen dute beti; guk, ordea, batere ez. Izan ere, beti gabilta alde batetik bestera korrika eta izerditan, beti zikin!». Tabernatik kanpo emandako tartekak aprobetxatu beharko ditu. Den-



◆ Juan Carlos Zapatero ◆

Zezenplazako garbitzailea

«Orain badakit
etxeakoandreak zer
sentitzen duten»

JUAN CARLOS ZAPATERO gazte iruindarrak bederatzit urte darama Sanferminetan zezenplazan lanean. Han egiten diren ekitaldi guztien ondoren hura garbitzea du betebeharra, beste 69 lagunekin batera. Denetara, hala ere, 400 langile aritzen dira Iruñeko zezenplazan, beste edozein plaza- zatan baino askoz gehiago.

Goizeko 8:30ak aldera hasten da Juan Carlos Zapateroren lan eguna, hau da, entzierroa amaituta. 45 bat minutu ematen dituzte, orduan, plaza garbitzen. Beste jaialdirik ez badago, zezenketa amaitu arte jai du iruindarrak. Gelditzen den lana, ordea, ez da makala, «zezenketa baita eguneko ekitaldi nagusia, bai eta zikinena ere». Hori bai,

itzaleko tendiduan esertzen direnak eguzkitakoak baino askoz garbiagoak direla azpimarratzen du zezenplazako garbitzaileak, irribarrez. Eguzkipean, noski, Iruñeko peñak egoten dira, ospetsu eta alaiak bezain zikinak, Zapaterok esan legez. Garbitzaileak, hala ere, ulertzen du hala izatea: «Ongi pasatzen etortzen dira plazara eta, azken finean, hainek botatzen duten zaborrari esker egin dezaket nik lan Sanferminetan».

Hala eta guztiz ere, zezenketen ondoren plazak duen itxura tamalgarriak beti harrizten du Zapatero: «Izugarría da. Den-dena zikin-zikina gelditzen da, eta egunero, kamioi bat betetzen dugu plazatik ateratako zabo-

San Fermin jaiak
Iruñean lanean

◆ Victoriano Bergara ◆ Kale garbitzailea

«Oso zikinak gara iruindarrok»

VICTORIANO BERGARAK zortzi urte darama Sanferminetan Iruñeko karririk garbitzen, FCC enpresako langilea da (FOCSA lehen), eta azken urteetan uztaile- lero egin du lan Iruñeko jaietan. Gaur egun ia ehun langile ditu FCCk Iruñeko karririk garbitzeko, eta Sanferminetan kopuru hori bikoiztu egiten da. Aurten ere 96 langile berri hartu ditu enpresak egun horietan lan egiteko.

Lehenengo langileak goizaldeko 4:00etan hasten dira lanean, goizeko 7:00etan bigarren txanda, eta arratsaldeko 2:00etan hirugarrena. Azken horretan egiten du lan Victoriano Bergarak. «Gauko langileek txandarik txarrena dutela esaten dute, baina gurea ere ez da makala». Bergarak, hala ere, ongi badaki Sanferminetako gauetan lan egitea zer den: «Alde Zaharra da okerrera. Navarrería, Caldereria eta Carmen kaleetan lan egitea, adibidez, Sarajevo egotea bezala da».

Garbitzaileek taldeka egiten dute lan. Kamioiarekin ibiltzen dira alde batetik bestera, eta batzuek errazta eskuan hartzen duten bitartean, beste batzuek tutu malguak erabiltzen dituzte lanerako. «Batzuetan oso zaila da lan egitea. Mundu guztia mozkortuta dago eta kamioian igotzen edo tutu malgua hartzen saiatzen dira. Ez dira konturatzeko arriskutsua dela. Botilak eta bestelakoak ere botatzen dizkigute».

Parrandazale guztiak, gainera, ez dira berdinak. «Frantziarrak dira zikinak, eta estatubatuarrek, berriz, garbienak. Gu ikusi eta botila-

rekin hurbiltzen dira, askotan, poltsan sartzen», azaltzen du. Baina, oro har, Sanferminak zaborraren jaiak direla azpimarratzen du Victoriano Bergarak: «Sine- nestezina da karriketaren hain-

beste eta hainbeste zabor pila- tzea. Egun normal batean eda- lantzi bat aurki badaiteke kalean, Sanferminetan 2.000 aurki dai- tzeke. Oso zikinak gara, eta ez bakarrik Sanferminetan».



Victoriano Bergara.
LUIS AZANZA



Juan Carlos Zapaterok bederatzit urte daramatza San Fermin jaietan Iruñeko zezenplazan lanean.
LUIS AZANZA

rrarekin». 70 lagunak plazako eserlekuen artean banatu eta goitiki behera hasten dira garbitzen. Botilak jasotzea da lehen lana. Botilak ezezik, hala ere, beste gauza bitxi asko aurkitzen dituzte plazako garbitzaileak: «Lasto fardelak, porlana, janaria, irina, kakaoa, ogitartekoak...». Sanferminetan bitan, halaber, tutu malguak erabiltzen dituzte garbitzaileek plaza urez garbitzeko, «bestela ezinezkoa baita eserlekuetan gelditzen den zikin- keriara ateratzea».

Beste lan askotan bezala, gar-

bitzaleentzat ere badira egun batzuek beste batzuk baino txar- ragoak. Zapaterok azaldu digunez, zezenketa telebistaz botatzen dutenean eta azken egunean are zikina goak dira iruindarrak: «Marka guztiak hausten dituzte. Azken egunean, adibidez, plazara eramandako pertzak han uzten dituzte».

Zapaterok eta haren lankideek egunero egiten dute lan, eta egunero, hainek garbitutako zikin- tzerara itzultzen dira peñetako ki- deak. «Orain badakit etxeakoan- dreek zer sentitzen duten», alpatu

Sanferminetako egun guztiak, bestalde, ez dira berdinak. Batzuek besteak baino okerragoak dira. Bergararentzat uztailearen 6a, 7a eta 14a dira okerrak; 6a, noski, txupinazoren eguna da. «Goizeko 10:00etan ailegatzan gara Santo Domingo aldapara. Eta txupinazoak eztanda egin be- zain pronto hasten gara lanean», dio. Biharamuna ere ez da makala, goizeko 10:00etan prozesioa ateratzen denez ordu horretarako dena txukun eduki behar baita. «Eta 14an, hainbeste jai egunen ondotik hain nekatuta gaudenez, zaila da lan egitea. Gainera, gurutzat jaiak ez dira 14an amaiz- ten», zehazten du.

Lan gogorra bada ere, jaiak gozatzeko modua ere bilatu eta aurkitzen dute FCCko langileek. Sanferminetan lan egiteak, gainera, lagunei hamaika bitxikeria kontatzeko aukera ematen die. Bergarak horietako batzuen berri eman digu: «Behin, lotan zegoen bat esnatu genuen garbitu behar genuelako. Haserretuko zela ueste genuen baina, horren ordez, pintxoak atera zizkigun». Sanferminetarako enpresak hartzen dituen langile berriak ere istorio askotako protagonistak dira: «Behin, Sanferminetan lan egiteko hartu zuten gaztetxo bat jaien lehen egunean galdu genuen. Txupinazoaren lehen egunean mozkortu eta ez zen lanera itzuli. Hori bai, buzoarekin ikusi zuten Sanfermin guztietan».

Xanti Begiristain

Patxi Ford

■ Ez pentsa, ez, irakurlea, nire asmoa enpresa horri propaganda merkea egitea dela, ezta gutxiago ere.

Gaur hartu dudan xedea oso bestelakoa da; izan ere, zenbait iragarkiri buruz hitz egin nahi baitut, eta bereziki ETBleko batzuei buruz. Arrazoiak nagusiki bi dira: bata euskararen ingurukoa, eta bestea sexismoari buruzkoa.

Hasteko esanen dut nik ETBlean hiru mota-tako iragarkiak topatzen ditudala. Iragarki batzuk ematen dituzte erabat gaztelaniaz, batez ere, futbola edo antzeko zerbait dagoenean. Arrunt gaizki iruditzen zaidala esateaz gain, zer gehiago nahi duzu adieraztea? Bakar-bakarrik azalduko dut hori ez zaidala batera serioa iruditzen; alderantziz, adarjotze hutsa deritzot telebista publiko euskaldun bakarrean erdara sartzeari, ikus-entzuleen baimenik gabe. Uste dut ETBleko zuzendariak eta erantzule nagusiek desprestijiatzen dituztela beren buruak ekintza horrekin, eta ez dela inondik inora ere zilegi.

horixe delako, hain zuzen ere, uztaillaren hastieratik aurrera ETB1ean (eta ETB2an ere bai) botatzen ari diren iragarkietako bat. Lehen katean, kasu honetan, erabat euskaraz ari dira ematen; alde horretatik ez daukat deus ere esateko, baina bai, ordea, sexismoari dagokionez. Hara, begira ezazu nola hasten den iragarkia. Familia bateko aitak ekiten dio hitz egiteari eta honela dio gutxi gora-behera: «Kaixo, lagunak! Patxi Ford nauzue eta aurkeztu nahi dizuet nire familia: emaztea, gure seme-alabak...», eta jarraitu egiten du.

Bai, irakurlea, bitxia da baina berriz ere ETBn aukeratu dute betiko modu sexistak aurkezteko sendi bat. Horrela familiako burua gizonetzkoa da. Gizona da nagusia, buruzagia, defendatzailea, etxera dirua ekartzen duena, denen babeslea eta gainera jabea («nire» familia). Nola ez? Kasualitate hutsa ote? Barka, baina ezin dut sine-tsi. Konfigurazio eta egitura horrek gogorarazten dit lehoien antolamendua, non arra baita indartsuena, buruzagia eta denen jabea; nahiz eta berak ez ehizatu, hala ere, lehena da jaterako



Euskal Telebistak Iurretan duen egoitza.

Bigarren iragarki mota zera da, euskaraz esaten dituztenak baina gaztelaniaz idazten dituztenak, hots, testuak eta esaldiak gaztelaniaz idatziak ageri ohi dira. Jakina, aurrekoak baino hobekixeago daude, baina dena den, ETB1 pertsona euskaldunentzat ematen badute, zer argudio ote dute erdara sartzeko? Ekonomikoa, noski! Baina beste galderatxo bat. ETB1 zabal-tzen badute Euskal Herri osora, zergatik ez ote dute idazten eta hitz egiten frantsesez ere Iparaldeko herritar erdaldunentzat? Argi geldi dardila ez dela hori nire nahia, baina Hegoaldean sartzen badigute gaztelaniaz arrazoi logikorik gabe, orduan zergatik ez Ipar Euskal Herrian frantsesa? Erantzuna oso erraza da, zeren eta ETB1 alde batetik ez baita erabat euskalduna, eta bestetik, Iparraldea nahiko ahaztua eta baztertua baitu.

Eta hirugarren iragarki mota, dena euskaraz egiten dituztenak, alegia, idatzi eta esan.

Baina itzul gaitzen idazkariaren galburua. Bai, Patxi Ford jarri dion jarri ere. Eta zergatik? Ba,

orduan. Bai, jaun-andreok, izan ere, oroitarazten dit oihanaren legea, eta ez zait inola ere egokia iruditzen milurteko berriaren atarian gizonetzkoa beti jartzea protagonista moduan arrazoi berezirik gabe, bakarrik ohitura desgokiak mantentzearen, eta jakina, batez ere, gizasemeen estatus eroso iraunarazteagatik.

Nik uste dut badela garaia gizon eta emakumezkoen artean, bi sexuen artean, benetako berdintasuna praktikara eraman dezagun, eta aztura okerrak, ordea, baztertzeko.

Hona hemen adibide on bat; Euskadi Irratian duela gutxi arte, pasarte batean senar batek honako hau esaten zion emazteari: «Ezin liteke! Patxi ez baitu nik baino gehiago irabazten!». Horrek aditzera ematen du senarrak dirua irabazten duela baina emazteak ez. Nonbait, norbait ohartu zen aldrebeskeria horretaz eta orain honela dio: «Ezin liteke! Patxi eta Amaiak ez baitute guk baino gehiago irabazten!». Beraz, Patxi Ford-i eman beharko zaio Emakunderen suspentsioa. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Sanfermin bezperan
Mañueta 24tik Periko
Alejandriaz

■ Ez naiz inor honakoan kexu agertzeko, baina sanferminak hurbiltzen diren neurrian, zimiko beltz batek estutzen nau larriki, eta sabel barrua arinki askatzen. Konturatzeke, eta uztaillaren sei gureganatzen zaigun ahala, egonezin likatsua garaitzen nau, neure gogoa bestelakotzen, hamaika pentsamenduk, oroipenek, imajinazioak, eta amets lurrinduk ene iruñtarzuna iruñkeria abarrikatzen dueno. Akabo paketa, eta akabo ezerezerkia lasaia. Geurea Mañueta 24an dago, txurrodenda bezain zahar, nahiz sekula ez dugu horren ozenki kukurukutu horren kariaz. Zezenen lasterketa burutu ostean, jendez gainezkako uholde oraino hordiegiak Mañueta beheti barreiatzen dira, nire bekaitzaren pizgarri, eta tamalez, krudelaren krudel, kapel pollak egiteko sandiak erostera datozkigunak badira ugari. Bederatzi egun zoroak higitu ostean nekea luzatzen zaigu amiñi bat hamabostean, COTUPeko maltzurrek bilabesa goiztiar kendu zutenetik. Santo Domingo gora eta frutaz kargaturik, idiarena egiteko beharra egokitzen digutenean ezin besterik. Horixe bai idiare eraman handia. Iruñeko kontuak. Garaletan eraikina ertetxea zenean, horren biltegi eta kortak omen genituen, eta Periko Alejandriak jaso arabera. Mañueta 24an Serafin Lakuntzak kudeatu *cordonería, sedería, quincalla* denda zegoen 1863.ean. Geroztik Bermeoko emaztekiek kudeatu arraindegia eta betiko janaridenda izan zen, egun bezain nahasi, egun bezain enpo, egun bezain sakon, lehendik Salvador Moralesek eta geroago Añezkarko Eustakio Perez-Zabalzak zuzendurik.

Eta Periko Alejandria aipatu dugularik, ezin ahantzi gaita jole genuela. Sanferminetan fama haundiko txuntxuneroa Jabier Etxeberria Eskirozko Ijitoa baldin bagenuen 1845.az geroztik bederen, Periko Alejandria etxandikoa genuen fama handiko gaitaria, turutaria eta zurrutaria. Elkar ezagutu zutenentz ez dakigu, baina halaxe pentsa liteke. Egungo azturari atxekiak baziren bederen, harremanak nolakotsuak zirakeen errazki asma daiteke; arras gaiztoak, erabat txarrak. Gaitegi ederra dute kulebroien egileek gaiteroekin nahiz gaiteroen arteko hartu-emanek eskainia. Ama italiar antzerkigilea omen zuen Periko Alejandria 1818.ean jaio zen Iruñeko etxandian. Udalaren bigarren pregoilaria izan zen buita laburrez, turuta eta guzti, lanik gabe geratzen ez zenean bederen, bada, 1852-1855 bitartean hamaika aldiz atxilotu baitzuten, mozkor eginda batzuetan, mozkor eginahaletan besteetan. 1869.ean bigarren aldizko pregoilaria izan zen, baina berriz ere gartzelaratu zuten eta 1875.ean betiko gaitu zuen lan baldar hura. Agidanean, Aldudeko neskalaguna aukeratu zuen danborjole lagun, eta Periko euskalduna sona handiko bertsoalaria zena, herriz herri ibili zen bertsoak eta musikak eskaintzen mezeten pozgarri. Garai horretan ere kosmorama izeneko tramankulua eramaten zuen feriaz feria.

Baina argitalpen ugariaren egile zein kudeatzaile bakarra izan genuen pertsona ezin dugu eite eta piura farregarria besterik gabe zezakeen inozotzat hartu. 1863.ean inprimategi baten zabaltzeko balmena eskuratu zuen. Bertan *El pamplonés* izeneko egunkaria agertu zuen —Iribarrenek dioenez, San Zerningo dorre gainean dauden latonezko bolatxoan barruan aleki batzuk gordeta daude—. Aldizkari horren ostean *La arropa de risa* izeneko atera zuen. Bestelako lanak ere atera zituen, besteak beste, *La cartera de Perico*, *Costumbres populares de Navarra y su capital*, *Noticia de D. Arnaldo de Barbazano obispo de Pamplona*, *Navarra jovial: costumbres del siglo XIX*, edota *Cantares de las fuentes de Pamplona y sus arrabales*.

El pamplonés: guía de la ciudad y manual de curiosidad, San Nikolas karrikako 17. zenbakian zegoen Sisto Diaz-Espadaren etxean argitaratutako 108 orrialdeko izkribua dugu. Horretan euskaldunondako intereseko bada eskaini zuen Iruñeko egoera linguistikoaren ebazpena, Iribarrenek ere jaso zuena: *Los vecinos habitantes y moradores de Pamplona usan en sus tratos y contratos cuatro lenguas, tres son del país vasco navarro y la cuarta es la francesa, que sirve de auxiliar en el comercio y relaciones con el vecino imperio. La primera es la castellana, que se emplea en la parte oficial, y pueblos de la ribera o tierra baja fronterizos con Zaragoza y Logroño. La segunda es la euscara o vascongada, lengua antigua de una construcción especial, comparada con las modernas, cuyo uso abraza la región del Pirineo con todas sus ramificaciones montañosas. Y la tercera es un dialecto de la localidad encerrado en las aldeas inmediatas a la capital, teniendo algún contacto con algunos habitantes de la misma, a causa de la interpolación de las dos lenguas citadas, de modo que más bien es una corruptela de ambas con algún rastro de concesión. Azken hau Testaunt Makata Arako zenak bere hizkealdietan jasoren antzekoa dugu: «Juana Mari cogel chico / pero no lagas qui llevas / lo pondras cucurubico / cuando quiteraser chirricas».* Iruñeko N. Golenetxe baitan 1868.ean argitaratu emaniko *La cartera de un navarro* liburuan ere euskararen aipamena bazekarren: *Las academias de ciencias, en las investigaciones que han practicado acerca de las lenguas, han manifestado que el vascuence o lengua euskara es un dialecto del fenicio; si es así nos cabe la satisfacción de poseer el idioma más anciano del país.* Gure Periko 1875.eko irailaren 28an zendu zen, Iruñeko setioa bukatu ostean, eta Beritxitosko kanpo-santura gorpua zeraman organa karlistek bahitu zutelako Orobrian turperatua izan zen. ■

Idoia izenekoen jaia igandean

Urtero legez, Euskal Herri osoko Idoiek haien zaindaria omenduko dute Izabako basilizan

Haiei zaindaria omen-
duko dute igandean
Euskal Herri osoko Idoiek,
Izabako Idoiako Ama Birji-
naren santutegian. Jai ospetsu eta maitatua da
Erronkariko bailarako biz-
tanle guztientzat. Igande
eguerdian hasiko dira egu-
neko ekitaldiak, basilizan
eginen duten mezarekin.
Ondoren, loreak eskainiko
dizkiote Idoia izeneko
emakumezkoek XIII. men-
deko Idoiako Amaren iru-
diari.

Fernando Hualde / Izaba

UZTAILEKO lehen igandean, etzi,
Izabako Idoiako Ama Birjinaren
santutegiak Idoia izena duten
nesken jaia hartuko du, azken
hamarkadetan bezala. Urtero
legez, Idoiek santutegiko Idoiako
Ama omenduko dute. Besta xu-
mea, hunkigarria eta koloretsua
da naturgune paregabe horretan
Idoiek ospatzen dutena. Hainbat
orduz, txoko askotatik etorritako
Idoiak dira protagonista. Urtetik
urtera, gero eta jende gehiago
erakartzen du Izabako besta be-
rezi eta bitxi horrek.

Eguneko ekitaldiak eguerdian
hasiko dira. Ordu horretan, meza
eginen dute basilizaren kanpoko
aldean, eguraldiak laguntzen
badu, behintzat. Idoiako Amaren
irudiaren aurrean Gozamenen
kantua abestu ondoren, santu-
tegiari bildutako Idoiek loreak
eskainiko dizkiote haien zainda-
riari, *izabar zerutiarrari*, alegia,
izen horrekin ezaguna baita Ama
Birjinaren irudia Erronkariko
bailaran.

Idoia Erronkariko bailarako
Izaba herriko toponimian antzi-
na-antzinatik agertzen den hitza
da. Idoiako Ama Birjinaren base-
lizaren ondoan dagoen inguruak
hartzten zuen izen hori, eta jakin
ahal izan denez, ia beti urez be-
teta zegoen lekua zen. Gaztele-
raz, hain zuzen, *juncal* bezala
ezagutzen da Idoia hitza (hau
da, inguru zingiratsua, putzua).
Joan den mendean egindako
kanalizazioek konpondu zituz-
ten basilizak zituen ur ara-
zoak.

Idoia hitza orain dela hainbat
mendez geroztik agertzen da Iza-
bako parrokiako agrietan zein
leinu liburuetan, beti ere *i gre-*
koaz -y- idatzita. Akats orto-
grafiko baten ondorioz agertzen
da horrela, baina, hala ere,
egungo euskara batuan erabil-
tzen ez den hizkia bada ere, ez
da ahaztu behar Erronkariko
euskarak erabiltzen zuela.
Erronkariko hitz hori idazteko
bi moduak zuzenak direla esan
daiteke, beraz. Zenbait hizkun-
tzalarik *y* erabiltzen dute Erron-
kariko euskaraz idatzitako tes-
tua denean, eta *i*, berriz, euska-
ra batuaz idatzitako testua de-
nean.

Hitz horren etimologia dena
delakoa izanda ere, egia hauxe



Ezkerreko argazkian, Izabako Idoiako Ama Birjinaren santutegia. Behean, Erronkariko hainbat emakume iaz ospatutako zaindariaren egunean, bailarako soinekoekin jantzita. FERNANDO HUALDE



da: mendeak daramatzatela izabarrek XIII. mendeko taila adoraten. Taila txikia da —53 zentimetroko altuera du— eta Idoiako Ama Birjina du izen. Irudi alaiak da eta Erronkariko bailara osoko biztanleek asko estimatzen dute. Urte osoan bisita ugari izaten du Idoiako Amak, Izabatik 900 metrora dagoen bere santutegian.

Pirinioetako txoko horretara Idoia izeneko neska ugari hurbiltzen da haien zaindaria ezagutzera. Felipe Ipas Anaut herriko

ermitauak, mundu osoko 400 Idoiaren izena idatzi du basilizako liburuan azken lau urtean. Euskal Herrikoak dira gehienak, baina badira itsasoz bestaldetik ailegatutakoak ere. Idoya Urrutia, adibidez, Estatu Batuetatik ailegatu zen bere izena basilizako liburuan idatzi eta zaindaria ezagutzera: Idoya Leal, berriz, Coahuilatik (Mexiko).

1974. urtean sortutako besta • Idoiako Amaren irudiak 700 urte darama Izabako basilizan; batna

mende honetara arte ez ziren hasi izabarrak herriko neskek haren izenarekin bataiatzen. Labayru etxeko Idoia Fortun Marco izabarra izan zen lehena, 1924. urtean jaloa. Orduz geroztik, izen horren erabilera asko hedatu zen. 60ko eta 70eko hamarkadetan jo zuen goia, eta Idoia izenak Erronkari eta Nafarroako mugak gainditu zituen.

Haien zaindaria ezagutzera Izabara hurbiltzen ziren nesken kopurua gero eta handiagoa zela ikusita, eta kontuan hartuz

70eko hamarkadako lehen urteetan Euskal Herrian izenik erabili-
liena Idoia zela, Idoien lehen
besta ospatu zuten Izaban, 1974.
urteko ekainaren 30ean. Izabako
apez Jesus Arbeloak bultzatuta-
ko ekimena izan zen. Orduz ge-
roztik, uztaileko lehen igandean
ospatzen da Idoien besta Izabako
basilizan, Idoia izeneko hainbat
eta hainbat neska bilduz. Erron-
kariko bailarako bertakoak
direnek, gainera, Erronkariko
jantzia eramaten dute soinean,
ohiturari jarraituz. X

◆ Joxemanuel Irigoien ◆ Kazetaria

«3.500 bisitari ditugu egunero Interneten»

Rikardo Arregi Kazetaritza sariak banatu ziren joan den larunbatean Andoingo Udalean, eta han egin ekitaldian izan zen Joxemanuel Irigoien kazetaria, hark zuzentzen duen *Ttipi-ttapa* herri aldizkariak irabazi baitu Komunikabideen berrikuntza ataleko saria. Euskarazko prentsan aldizkari osoa Interneten sartzen aurrena izan da *Ttipi-ttapa*.

Edurne Elizondo / Iruñea

BERAKO Udaletxean du *Ttipi-ttapa* aldizkariak egoitza. Astearte goizean, egunero bezala, goizeko 9:00etan ailegatu zen hara Joxemanuel Irigoien, eta gurekin mintzatu zen jaso berri duten Rikardo Arregi sariari buruz.

■ **Ohiko galdera bada ere, zer moduz zaudete Rikardo Arregi saria irabazi ondoren?**

Guretzat sorpresa izan da eta izugarri kontent gaude. Saria hartzerakoan ere gauza bera erran nuen, zalantza genuela egiatan merezi ote genuen; izan ere, ez baita hainbeste kontua. Gaur egun, kasik edozein komunikabidek eduki dezake edizio digitala sarean. Beharbada pauso hori ematen lehenak izan garelako eman digute saria.

■ ***Ttipi-ttapa* Interneten sartzetik, orduan, ez dizue hainbesteko ahalegina eskatu?**

Esfortua bada, denbora aldetik, baita ekonomikoki ere. Zalantza genuen hasieran, gainera; ea esfortzu horrek emaitzarik izanen zuen, hau da, ikusteko zegoen *web* orri horrek bisitariak izanen zuen edo ez. Urtebete pasata, egunean gutxi gora-behera 3.000 edo 3.500 bisitari izan ditugula erran behar da. Ez da ikaragarriko kopuru handia beste komunikabideek izan dezaketenarekin konparatuz, baina ulertu behar da *Ttipi-ttapa* herri komunikabide bat dela eta agertzen den informazioa erabat lokala dela.

■ **Zer-nolako bisitariak izan dituzue?**

Orain dela bi hilabete gure bisitariak nolabait kontrolatzen hasi ginen Nafarroako Internet Elkartearen laguntzaz, jakiteko nongoak ziren. Eman dizkiguten datuen arabera, gehienek, bisitarien % 45ek, Espainiatik egiten dute bat gurekin Interneten bidez, % 30ek Amerikatik, % 15ek

Europatik, eta % 10ek beste herrialdeetatik. Ia gehienak hemendik kanpo bizi diren hemengo lagunak dira.

■ **Nola sortu zen *Ttipi-ttapa* Interneten agertzeko asmoa?**


Alde batetik, susmo garbi bat genuen, Nafarroako iparraldea historikoki emigrazio handia izan duen lekua baita. Hori bagenekien, paperezko edizioan ere harpidetza kopuru dezentea baiken Ameriketan. Hori jakinda, pentsatu genuen jende horrentzat agian egokilagoa izanen litza-tekeela beste bitarteko baten bidez jasotzea aldizkaria, ordenagailuaren bidez kasu honetan. Merkeagoa eta errazagoa da, gainera, halentzat.

■ **Urrats berri hori egiteko, *Ttipi-ttapa* izan du abantaila bat, oso aldizkari sendotua baita banatzen den eskualdean. Zein da zuen arrakastaren giltzarria?**

Nik uste dut informazio lokala bera dela. Badago behar bat, jendeak badu behar bat maila horretan, eta behar hori asetzen duen komunikabidea martxan jartzen bada eta lan hori gutxieneko kalitate baldintzak beteta egiten badu, arrakasta izatea ez da beste munduko gauzarik.

■ ***Ttipi-ttapa*-ren ibilbide luzea ikusita, zuek ere izanen duzue meriturik, ezta?**

Seguruena bai. Dagoen beharra asetzea lehen pausoa da. Iraun ahal izateko beste zerbait behar duzu, hobetzen saiatu, produktu txukuna eskaini. Azken finean, kalitate pautak merkatuan daudenak dira, eta kalitate pautak horiek eta kontsumoak ez dute ulertzen komunikabide

Joxemanuel Irigoien, *Ttipi-ttapa* aldizkariaren bulegoan.

JAGOBA MANTEROLA

baten baliabideak nolakoak diren edo ez diren. Betiko borroka da, eta beste komunikabideek bezala, herri komunikabideek ezin dute ahaztu merkatua hagitz dinamikoa dela, irakurlearen arreta bereganatu beharra dagoela beti, produktu atsegina egin behar dela, eta informazio puntuala eskaini.

■ **Internet, dena den, ez da egun**

esku artean duzuen erronka bakarra, herri telebista sortzeko asmotan baitzabiltzate. Zertan da momentu honetan proiektua?

Abiatu gara. *Ttipi-ttapa* Fundazioa sortu dugu, alde batetik, eta bestetik, *Ttipi-Txartela* jarri dugu martxan, herritarren laguntza biltzeko. Oinarri sozial zabalagoa lortu nahi izan dugu horren bidez, lehen aldiz. Urte honetarako 1.000 bazkide lortu nahi genituen, eta jada 800 ditugu. Horri esker bost bat milioi pezeta lortzea espero dugu. Borrokatzeko gelditzen dira Administrazioari eskatu beharreko di-

s o s l a i a

34 urte ditu *Ttipi-ttapa*-ko zuzendari Joxemanuel Irigoienek. Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako kanpusean egin zituen kazetaritza ikasketak. Orain dela zortzi urte hasi zen karrera ikasten, eta bost urteren buruan amaitu zuen.

* *Ttipi-ttapa* aldizkaria, sortu eta handik urtebetera ailegatu zen Irigoien, 1982. urte inguruan, alegia. Hamasei urte bete dituen aldizkariaren ibilbidea, beraz, ongi ezagutzen du kazetariak, eta gertutik jarraitu ditu argitalpenak egin dituen urrats guztiak.

* Berako Udaletxean du egoitza *Ttipi-ttapa*-k. Han biltzen dira egunero aldizkariaren erredakzioa osatzen duten hiru lagunak, Irigoien bera, Asier Gogorza eta Aitor Arozena. Publizitateaz Karmele Tolosa arduratzen da, eta administrazioaz Amaia Gota.

Laguntzaile sare zabala dute, gainera.

rulaguntzak. Gure lehen asmoa emisoreak martxan jartzea da, eta horretarako kanalak okupatu behar ditugu. Baina hor tirabira handia dago. Baztanen gurekin batera lanean ari den Xaloe elkarteak jada lortu du, seinale bat okupatu du. Bertzietan, berriaz, abuztuan bertan ekipoa jartzea espero dugu, *carta de ajuste* ematen hasteko. Telebista martxan jartzean, *Ttipi-ttapa* aldizkaria ere egokitu beharko dugu. Esparru handiagoa hartuko du, eta edukiak egokitzen joanen da. x

«Herri komunikabideek ezin dute ahaztu merkatua hagitz dinamikoa dela, irakurlearen arreta erakarri beharra dagoela beti»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

